

# ttipi-ttapa

298. zenbakia • 2001ko martxoak 22 • XXI. urte

## Lehen elurteak loretan harrapatu zituen arbolak

**Argazkiak bertzerik  
erakusten badu ere, ez da  
elur urtea izan aurtengoa.  
Zuhaitzak loretan zirela  
ikusi dira lehen elurrak,  
eta udaberria, kasik  
negurik egin gabe  
ailegatu zaigu aurten.**

Argazkia: Antton ERKIZIA (Leitzako Mendibil Elkartearen argazki lehiaketako lehen saria)

115 6



### 24 Kirola: Olaizola I eta Goñi III txapelaketa

Asier Olaizola goizuetarrak eta Fernando Goñi zubiritarrak Espainiako eskuz binakako pilota txapelketa irabazi zuten, martxoaren 11n Donostiako Atano III pilotalekuan Alustiza eta Belokiren kontrako finala 22-13 irabazi ondotik.

### 3 Elkarriketa: Mattari Altuarte

BKZ eta Bidarraiko Añamendi enpresek hizkuntza, kirola eta natura uztartuko dituen egitasmoa prestatu dute idaberrirako. «Nafarroa eta Akitaniako gazteen arteko harremanak estutu nahi ditugu» dio Mattari Altuartek.

### 4-5 Erreportaia: Zaborra bereizi eta bakoitza bere ontzira botatzeko kanpaina

hasiko da abudo Baztan, Malerra eta Bortzirietan.

### 6 Gaurkotasuneko Gaia: Egurdia aldatzen ari da?

Udaberria ailegatu zaigu eta negus ez dugu kasik somatu. Klima aldaketaren seinale? Hiru adituren iritzia bildu dugu.

**TTIPI TXARTELA:** Orain txartela izateak abantaila gehiago ditu. Erosi zeurea eta erabili.



# Mendilanetarako dirulaguntzak memoria eta proiektuen idazketa lanak



*etorri Arizkungo bidegurutzean  
ireki berri dugun bulegora*

*basarte@terra.es  
948 196 351*

# basarte



## Bidali TTIPI-TTAPA herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu  
behar dira.  
Eskatu informazioa.

 (+34) 948 631 188



## DATUAK

❖ Bertizko Nafarroa Abentura BKZ eta Bidarraiko Auñamendi enpresek hizkuntza, kirola eta natura uztartuko dituen gazteendako proiektua prestatu dute udaberrirako.

❖ Hamabi asteburuz egingen da, martxoaren 24tik hasi eta ekainaren 31 bitarte. 600 gazteendako lekua izanen da, 50-60 asteburu bakoitzeko.

❖ Nafarroa eta Akitaniako 18 eta 30 urte arteko gazteei zuzenduta dago. Nafarroako Gobernuaren eta Akitaniako Kontseiluaren laguntza jaso du. Nafarroako Unibertsitate Publikoak ere bertako gazteak lagunduko ditu.

TESTUA:  
JOANA NIGEZ  
ARGAZKIA:  
TTPI-TTAPA TB

✉ Mattari ALTZUARTE BKZko arduraduna

## "Nafarroa eta Akitaniako gazteen arteko harremanak estutu nahi dira"

### ZEIN HELBURUREKIN PRESTATU DUZUE «BIDARRAI 2001» EGITASMO BERRI HAU?

Akitania eta Nafarroako gazteen artean natur kirolak eginez harremanak estutu nahi ditugu. Horretarako gazteek asteburuko egonaldiak Bidarraiko Auñamendi aterpean egingen dituzte, udaberriko asteburu gehienetan. Gure esperientziaren arabera, natur kirolak praktikatzea harreman hori estutzeko arras baliagarria da, bertze giro bat sortzen da.

### KIROLAK EZ EZIK, HIZKUNTZEK ERE GARRANTZI BEREZIA IZANEN DUTE PROIEKTU HONETAN?

Hizkuntzak oinarritzat hartzen ditugu, elkartzeko elementu garrantzitsua direlako. Etorkizuneko Europan hizkuntzak aberastasun kulturalak direla ikusi behar da eta ez batzuk bertzeak zapaltzeko tresna bezala. Proiektuak hartzen duen lurraldean, frantsesa, gaztelera eta euskara entzuten da eta hiruak entzuztera ohitu behar dute gazteek. Hizkuntzekiko harreman hori armoniaz bultzatu nahi dugu. Hizkuntz normalizaziorako interesgarria izanen litzateke Erriberako gazte bat, Bordelekoa eta Leitzakoa elkartzen plangintza honetan.

► **Bortziriak, Baztan edo Malerrekako gazteek ez dute ohitura handirik hemelako ekitaldietan parte hartzeko. Aukera ederra dute orain.**



«Etorkizuneko Europan hizkuntzak aberastasun kulturalak direla ikusi behar da».

### ZENBAT JENDE ESPERO DUZUE KAMPAINA HONETAN?

Seirehun gazteendako lekua izanen da, asteburu bakoitzeko 50 edo 60 lagun. Udaltxeak ere interesatuak agertu dira. Adibidez, Tafallakoak egina du bere eskaria, Europako dirulaguntzari esker prezioak ere arras interesgarriak direlako. Asteburu osoa ekital-

diak eginez (rafting, kayak, kainoiak, puenting, piragua...), bazkariak, lotarako lekua, aseguak, materiala eta monitorea 8.000 pezeta-tan ateratzen da. Larunbat arratsetan mahaingurua ere izanen da. «Hizkuntzak eta gazteria Nafarroa eta Akitania» izenburupean.

### ZER EGIN BEHAR DU PROGRAMA HONETAN PARTE HARTU NAHI DUEN GAZTEAK?

BKZra jo behar du edo telefonoz informazio gehiago emanen zaio (948 592322). Gainera, ez da beharrezkoa tal-

dea osatzea horretarako. Banaka edo binaka nahi izanez gero ere izanen da aukerarik, horrek ez du mugatu behar. Bortziriak, Baztan eta Malerrekako gazteak ere animatu nahiko nituzke, bereziki. Ez dugu ohitura handirik asteburuak hor bama pasatzera ateratzeko. Kanpotik bai mugitzen da jendea, baina hemendik gutti. Oraingoan aukera ederra dago, kirola giro onean egin, kultura eta jende ezberdinak ezagutu eta asteburu prezio merkean pasatzeko.





ZABORRAK BAZTAN, MALERREKA ETA BORTZIRIETAN

# Bereizi eta bakoitza bere ontzira botatzeko kanpaina

**Gure gizarte aurreratu honetan gero eta gehiago da sortzen dugun zaborra. Erosten dugunaren %20 ia zuzenean botatzen dugu. Behin eta beriz bildutako produktuek hondakin gehiago sortzen dute eta garestiagoak dira. Eguneroko gutariko bakoitzak kilo bat zabor sortzen du gutti goiti beheiti eta gero eta gehiago izanen da. Horren jakitun izanik eta gure ingurumenarekin solidario izateko, eguneroko ohituretan GBB filosofia ezarri behar omen da: Gutzitzea, Berrerabiltzea eta Birziklatzea. Filosofia horrekin bat eginez, zabor ontzi berriak jartzeaz gain, zaborra bereizi eta bakoitza bere ontzira botatzeko kanpainari ekinen diote Abudo Baztan, Bortzirriak eta Malerrekan.**

TESTUA: AITOR AROTZENA

**Z**abor mota bakoitza dagokion tokian uzten ez dugun bakoitzean ingurumena kaltetzen ari gara eta, gainera, garestiagoa da. Kontuan hartu behar da banaz bertze pertsonako kilo zabor sortzen dugula eguneroko (baserri eta auzotakoek, 0,9 kilo; auzo handi eta herri itikietakoek 1,1 kilo eta herri haundietakoek 1,5 kilo). Beraz, ezinbertzekoa da kopuru horren zati bat bederen, beriz ere erabili ahal izatea: birziklatzea, alegia. Orain arte, zabor mota bakoitza bereizteko ontzi nahikorik ez genuela aitzakitzat jartzen ahal genuen, baina azken urteetan aldatzen ari da hori. Kristalak, pilak edo papera eta kartoia eguneroko zabor organikoaz bereizteko zaborrontziak jarriak dira azkeneko urteotan ia inguru osoan. Orain bertze pausu bat emanen da Bortzirriak, Malerreka eta Bortzirietan: papera

eta kartoia alde batetik eta brik, plastiko edo metalezko enbaseak bilduko dira bertze aldetik, bakoitzak beraien zaborrontzietan berezi ondotik.

Gainera, tamaina handiko hondakinak etxez etxe bilduko ditu Iruñeko Traperos de Emaus erakundeak. Zerbitzu horren bitartez, bolumen handiko objektu guztiak bilduko dira, edozein egoeratan egonda ere, zaborrak, hondakin organikoak (animalienak edo begetalak) eta hondakin industrialak izan ezik, eta beti ere objektuak maneiatzeko bitarteko mekanikorik behar ez denean (hala nola, garabiak, txirrikak...) eta momentuan eramateko prest baldin badaude.

## Tamaina handiko hondakinak etxez etxe bilduko dira

Tamaina handiko hondakinak bilduko dira, hain zuzen, hemendik aitzinera zaborren bilketan aldaketa han-



**Baztan****Bortzirriak-Malerreka**

## PAPERA eta KARTOIA

kolore urdina duten zaborrontzietan

Paper Tona bat egiteko hiruzpalau Tona zur behar dira. Horregatik, paperaren neurrigabeko kontsumoak, zuhaitziak moztea eta zur aunitz ematen duten zuhaitzekin oihanberritzea eragiten du. Papera bi aldeetatik erabiltzea garrantzitsua da, baita fotokopiak egiten ditugunean ere. Birziklatutako papera eta kartoia erabiltzea oinarizkoa da. Birziklatutako papera lehendik erabiltako paperarekin egiten da, gehien bat. Merkatuan paper ekologikoa ere topatzen ahal da: Pastaren zuritze prozesuan ez da klororik erabili.

### Kontuan hartu beharrekoak:

Kartoia tolestua bota behar dugu, ahalik eta leku guttien har dezan. Ez da paper zikinik bota behar, muki-zapiak edo haurren oihalak, adibidez, ezta aluminio-papera edo fax-paperik ere. Plastikaturtako papera edo klipak, grapak edo gisako metalak dituztenak ere ez dira bota behar.

Paper berrietan erabiltzen den paper erabiliaren portzentaila ezberdina da: paper birziklatuan %100ekoa da, kartoian %81,3, enbaltzeko paperean %30,7, komuneko paperean %31,3...

**Baztan****Bortzirriak-Malerreka**

## ENBASEAK

(Brik, plastiko, metalezkoak)

kolore horia duten zaborrontzietan

Gure eguneroko bizimoduan, brik, plastiko eta metalezko enbase dexente erabiltzen ditugu.

• **Plastikozko enbaseak:** garbigailuak, leunkariak, lixibak, etxea garbitzeko produktuak, freskagarriak, olioak...

• **Janari-kontserba latak** (normalean burnizkoak) baita edari freskagarri latak (normalean aluminiozkoak).

• **Brik-ak:** Brik enbaseak kanpoaldean plastikozko kapa bat dute, erdian kartoizkoa eta barnean aluminiozkoa (normalean, esnea, zumoak, ardoak... dituzte).

Gisa honetako hondakinak edukiontzi hori berrietan sartu behar dira. Honela, berriro ere aprobetxatu ahal izanen dira, birziklatuz eta material berriak lortu.

### Kontuan hartu beharrekoak:

Enbaseak hutsik eta garbiak bota behar dira, ahal bada tolestuak. Enbase bat bertzearen barnean ez sartzea komeni da. Tapak enbasetik bereiz sartzea hobea da. Poltsa baten barnean eramaten baditugu, gero tratamendua erretzeko, poltsa hustu eta enbaseetatik bereiz sartu. Ez dira jostailuak, kaxulak, zarzagiak, bideo- edo musika- zintak, diskak, orraziak, hortz-eskuilak, aluminio-paperak... edukiontzi horietan sartu behar. Izan ere, plastikoz edo aluminioz eginak izan arren, ez dira enbaseak.

## TAMAINA HAUNDIKO HONDAKINAK

**BAI**

- ⇒ Mobleak, hozkailuak, telebistak, motoak...
- ⇒ Gehienez ere hiru lagunen artean mugitzeko modukoak

**EZ**

- ⇒ Industria eta obrako hondakinak
- ⇒ Animalia hilak eta hondakin begetalak



diena izanen duena. Orain arte hondakin horiek zaborrontzien ondoan utzi eta hilean behin biltzen zituzten. Orain ere hilean behin bilduko dituzte (Bortzirietako Mankomunitatean hileko bigarren ortzegunean, Malerrekako Mankomunitatean hileko hirugarren ortzegunean eta Baztanen hileko laugarren ortzegunean) baina etxetik bertatik eramanez dituzte, horretarako aitzinetik telefonoz deituta.

Traperos de Emaus erakundearen ustez, bolumen handiko hondakinen bilketa antolatzeko sistema egokiena da etxez etxeko zerbitzu hau. Talde horretako kide den Federicoen erranetan, «Objektuak eta materialak aprobetxatu eta birziklatzeko metodarik onena da, objektuak ez direlako nahasten, zikintzen edo hondatzen. Erabiltzaileendako kalitatezko zerbitzua da, ez dutelako inolako esfortzurik

egin behar eta etxean bertan jasotzen zaielako objektua. Objektuak ez dira kalean egoten eta zerbitzuko langileek baino ez dituzte manelatzeko; beraz, ez da inolako botatze gunerik egoten kalean. Gainera, objektuak ez dira hondatzen eguraldiaren eraginez (euria, elurra, haizea...), ezta sakabanatzen ere».

Bertzalde, materialak birziklatu eta berreskuratzeko biltzen direnez, herritarrak gai

honen inguruan kontzientziatu egiten dira. «Erabiltzaile asko pozik ikusten ditugu, euren objektuak eramateko eskatzen digutenean. Horrelako zerbait esaten digute askotan: "Nik jada ez dut erabiliko, beraz beste batzuek erabil dezatela". Elkartzasuna argi eta garbi ikusten da eta horrek komunitatearen aldeko gauza ugari adierazten ditu». Azken finean, birziklatzearen filosofia horixe baita. ■



LEGE GORDAILUA: NA-1324/85  
FRANKEO ITUNDUA: 34/79  
TIRADA: 7.100 ALE

### Helbidea:

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA  
Herriko Etxeko Plaza, 1  
E-31780 BERA (Nafarroa)  
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88  
Faxa: (+34) 948 63 12 91  
Internet:  
<http://www.topagunea.com/ttapi-ttapa>  
e-mail:  
[ttapi-ttapa@topagunea.com](mailto:ttapi-ttapa@topagunea.com)

**Jabea:** TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.  
**Presidentea:** Pello Apeztebea.  
**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.  
**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.  
**Publizitate:** Kulturkari, S.L.  
**Administrazioa:** Amaia Goia.  
**Erredakzioa:** Aitor Arotzena, Asier Gogortza.  
**Berriemalleak:** Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Pabí Otxandorena, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Lorena Galarregi, Pablo Mendiburu, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Ana Mari Etxeberri, Frederick Berruet, Elixabet Iturria, Garbifé Maiz, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arozena, Asier Gogortza.  
**Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa, Mikel Bezunartea, Belarra...  
**Inprimategia:** Gertu.  
**Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirieta Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkarte...

### Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria ... 2.400 Pta.  
Ipar Euskal Herria ... 180 Libera  
Europa ... 4.600 Pta./ 180 Libera  
Amerika ... 16.500 Pta.  
Baztan, Urdazubi, Malerrekako, Leitza eta Areso ... 2.000 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako Gobernua laguntza jaso du

## GAURKOTASUNEN GAIA

### Kasik negurik gabe ailegatu da udaberria

#### Neguko hormak beharrezkoak dira mamuru guziak hiltzeko



Jonito PEÑA BERA

Sobera goxoa izandu da aurten negua. Gauzak bere denborean

behar dute, batere hormarik ez du egin eta dagoeneko pinuaren har alu hori hor dabilba deskantso ederrean paseatzen, ez baitio batere kalterik egin neguak. Horrek ez du gauza onik ekarriko, gero arboletan kalte ederra egiten dute.

Gainera, oraindik apirila aldean hormaren bat edo bertze botatzen ahal du, eta orduan a zer desastrea egiten ahal duen! Arbola guziak loratuak dira, txoriak kantari hasi dira kontent, eta...

Jendea ere kontent dago eguraldi eder honekin, baina neguan negua egin behar du eta udaberriaren udaberria. Neguko hormak beharrezkoak dira mamuru zahar horiek denak garbitzeko.

Nik ezagutu dut, orain dela 50 urte, eguraldi erogarria, neguan euria, euria eta euria, eta otsailko lehendabiziko egunean gelditu zuen euria, hasi zuen horma, hilabete osoa egin zuen horma. Erramuak, pinuak, dena garbitu zuen, pentsatu otea zer deabrua den, ba otea ere garbitu zuen... dena hondatu zuen.

#### Nere ustetan eguraldiaren nahasteak lotura du abioien mugimendu handiarekin



Juan Cruz RURETA BIZONDO

Aurten ez dugu negurik batere ezagutu, hezetasun aldetik bai,

bainan hotzik batere ez. Nik ikusten dut eguraldi honek gero bueltak ekartzen ahal dizkigula. Neguan aziendak dituenarendako eta aunitz jendendako denbora onak egin ditu, baita mendian ibiltzen garentzat ere. Baina hortik aparte hau ez da batere ona, orain zuhaitz denak lore-lorean daukelako, eta gero horma bat egiten badu dena hondatzeko beldurra ematen dit.

Ageri dena da haizego hau aldatuko dela. Luze xamar irauten badu igual ailegatuko gara uda aldera eta hormarik gabe pasatuko gara, baina orain hau aldatu eta iparra sartzen bada hormak errex ailegatzen ahal zaizkigu.

Elurra eta horma beharrezkoak dira. Bertzenaz udan hainbat zinkeri izaten dira, euliak... eta baratzetan bertze hainbertze zomorro ezin atezaz.

Neretako eguraldia aunitz nahastu da azken urteetan, eta beharbada huts egiten dut, baina iduritzen zait zeruan hainbat abio ibiltzen direlako aldatu dela horrenbertze.

#### Tenporek eguraldi nahasi xamarra agintzen dute udaberrirako



Miguel SUKUNTZA LEITZA

Ez da normala eguraldi hau, ezta ona ere. Neguan neguko eguraldia egin behar du, gainera-

koan kanpoa neguan aurreratzen da eta primadera txarra heldu baldin bada, akabot!

Aurten ez dakit beranduko izotzik egiten ote duen, baina haizearen aldaketa batekin ez da harrizkoa izaten bi edo hiru izotz egitea, hemen Leitza alde honetan ez behinipin. Bera aldean eta beharbada ez horrenbeste, baina Leitza alde hau leku hotza da.

Oso temperatura altuak izan dira negu honetan, nik ez dut klase honetarako ezagutu. Orain dela 40 urte baino gehiago ilbeltza izandu zen ikaragarri ona baina otsaila oso txarra egin zuen eta pinuak eta dena ihartu zituen.

Joan den martxoaren 7an, 9an eta 10ean izandu ziren tenporak, eta nahasi xamarra gelditu dira. Izandu dira haize aldaketak, mendebaldekoa, hegomendebaldekoa, haizegoa... denetarik. Tenporek denboraldiko hiru hilabeteetan zer egiten duen iragartzen dute eta seguraski horrela izanen dugu eguraldia, nahasi xamarra.



ttipi-ttapa fundazioak Europako Batzordearen dirulaguntza jaso du

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

### LESAKA:

• Astehenerdik asteazkenera 9-13etara eta 15-19etara  
• Ortzegun eta ortzalean, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bitria 6 • Tfnoa: 948 637050

### BURLATA:

ARTEKARI S.L., ☎ 948133328-133346. Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☛ Langile Autonomoak
- ☛ Nekazariak eta mendi-langileak
- ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☛ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☛ Diru-laguntza ezberdinak
- ☛ Kontabilitateak
- ☛ IVA eta IRPF
- ☛ Errenta aitortpenak
- ☛ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- ☛ Bideragarritasun planak



## IRAKURLEAK MINTZO

**SOS Deia: Guraso euskaldun batzuek Gobernu anitz bati**

Urtarrilaren 6an, urtero Errege egunean egin ohi zenez, Bortziriak jauna haur baten gisara poz-positik jaiki zen eta bere opariaren bila abiatu zen. Baina, hara non, han ez zuen aurkitu Errege Magoek ekarri ohi dituzten opari sofistikuturik, ezta antzina, urtean zehar gaiztakeriak egiteagatik ekarri ohi zieten ikastz puskarik ere. Horien ordez NAO (BON) eder bat agertu zen, izenburu gotikoekin apaindua eta erantzunik onartzen ez zuen datarekin: 2000ko abenduaren 11.

372/2000 Foru Dekretuaren edukia laburbiltzen zuen izenburua irakurri bezain laster, bere gorputza dardarka hasiz: «euskararen erabilera gure komunitate entzute-tsuaren arautzen duen dekretua». Ezin deus onik espero Sanz jaunak gure hizkuntza arautzeko sinatutako dekretu batetik. Goizeko lehen orduak izaki, ongi ikusi ez zuelakoan, eskua dardar batean, Eguberritako arbolaren ondoan zegoen lanpara piztu zuen, irakurtzen jarraitu ahal izateko. Ez! Ez da posible! Bere begiek bizi-bizi irakurri zituzten NAOko letra bikiak; daradarka jarraitzen zuten. Zergatik ote? Beldurra akaso? Irakurtzen ari zena lehenbeago izandako pentsamendu beltza baino beltzagoa zen. Hura ez zen euskararen erabilera arautzea, euskararen erabilera «akautzea» baizik.

«Zer gertatuko da gure hizkuntzarekin?» zioen behin eta berriz. «Mendez mende gora-behera guztien aitzinean kemenez hura zaintzen aritu ondotik, dekretu batek suntsituko al du?» galde egi-ten zuen. «Lingua Navarrorum edo, hitz batean, kultura: euskara horixe baita» pentsatu zuen. «Gure seme-alabek egunen batean eus-

karazko heziketa maila gutxietan (Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoak, Heziketa Zikloak eta Unibertsitatea) izan dezaten orain arte egin dugun bidea bukatu al da? Amidegi baten aitzinean gauden? Dena galtzear al dago? Gaizki irakurriko zuten: «gobernu anitz batek herritar guztiak kontuan hartu behar ditu eta beraz, ezin aharntzi du herriaren zati haundi bat. Botoak ez ezik, aintzat hartu behar ditu euskararen legea aldatzeko bildutako 50.000 herritarren sinadurak. Inoxoenak ere badaki gobernuak denon hitza entzun behar duela, eta denoi erantzuna eman, gurasook geure seme-alaben nahiz gainerakoen beharra asezten ahaiegentzen garen bezala».

Pentsamendu beltz horiek alde batera utzi nahian, telebista piztu zuen. Kazetari batek behin eta berriz banku kontu bat eta telefono zenbaki bat ematen zihar-duen, ikus-entzuleek eitzeitsuan bildutako diruboa hiru laguntzako eman zitzaizten. Zera pentsatu zuen: «ez al litzateke hobe elebizi dauden bide seinaleak kendu eta erdarazkoak paratzeko gastatuko den dirutza kazetari hark aipatutako beharrak asetzeko erabilizte?» Izan ere, guraso euskaldunok halako laguntzarik ezin izanen dugu eman, dirua behar dugulako gure seme-alabak beren ikasketak (goi mailako zikloak eta unibertsitatea) euskaraz jarrai ditzaten bertze komunitateetako ikastetxeetara eramateko, gurean zerbitzu hori behin eta berriz ukatzen baitzaigu.

Ideia berririk aitzinekoek gailendu zitzaizten. «Ezin dugu inor euskaraz bizitzera behartu eta modu berean, inork ezin gaitu euskaraz ezin izateko behartu». Eta hainbertze buelta eman ondotik, bere burua sofa gai-

nean bota zuen Eguberritako arbolaren itzalpean, berak eta bertze guraso anitzeko Errege eguneko egunsenti hartan bizitakoa berriz errepikatuko ez zen itxaropenarekin. Akaso Errege Magoek opari berririk ekarri ezaketo: Euskararen Legearen zinezko aldaketa, Sanz Jaunak sinatua.

TOKI ONA INSTITUTUKO GURASO ELIARTEA, BORTZIRIAR.

\*\*\*

**Goizuetan denok Korrikarekin!**

Aurreko hamalaka edizioetan ez bezala 12. Korrika Goizuetatik igaroko da apirilaren 6an. Dagoeneko herri guztiak jakinaren gainean dago eta ilusioz beteta gainera. Kilometroen salmenta ere arunt ongi doa, baina helburuak ere haundi xamarrak dira, herritik Ezkurrako gaina artekoak osatu nahi baitira, 15 km. eta 600.000 pezeta zehatzago esanda.

P.D.: Gutun hau idazten ari naizela, orain arteko Korrika guztietan kilometroak erosi dituen herriko erakunde batek aurtengoari lagunduko ez diola esan didate. Ongi pentsatu gabe hartutako erabakia izanen da. Beraz, seguru nago leho hauek TTIP-TTAPAN argitaratu orduko berrehun herritarrek goiti bere baitan daukan elkarte horren dirulaguntza jasoa izanen duela Korrikaren edizio berririk.

ARANTZAZU Z.

\*\*\*

**Goizuetako jendeari:**

Goizuetako herriari gure esker onak bidali nahi dizkiogu. Lehengo egunean, inauteriak zirela, Lesakatik Goizuetara abiatu ginen, han, giro paregabean, besta on bat egiteko asmoz. Han ginela, saltsan sartuak, kartera, 25.000 pezeta, kobxeo eta etxeak giltzak galdu ginituela ohartu ginen. Hura amorruta! Zomolako nerbioak! Orduan, inpotentzia egoera horretan, nerbioak jota ginela, goizuetaren laguntza gurtia izan genuen; benetan eskertzekoa! Horregatik, hitz hauen bitartez, gure eskerrik beroenak bidali nahi dizuegu, bereziki Urutinea ostataua eta Mutuberria ostatuakoei, gurekin izan zenuten pazientzia eta atentzioagatik. Egia erran behar badugu, gure burukomin handiena ez zen galdutakoarengatik, benetan kezkatzen gintuena zera zen: ez genuen Goizuetan bizitzen gelditu nahi! Lesaka hagitz ere herri politagoa baita! (kar, kar, kar).

Bromak aparte, ez dugu behin ere ahaztuko guregatik egin zenuten gurtia. Bettek Lesaka eta Goizuetako jendearen artean hagitz harreman ona izan dugula ezin da ukatu, eta ez da harritzekoa zuek bezalako jende fin, jatorra eta prestuekin harreman ona izatea ez da bate-re zaila. Erran bezala bada, esker mila aunitz eta bada-kizue, Lesakan hiru lagun haundi dituzela nahi duzun guztirako, Sanferminetan besta ikaragarriak pasatzeko ere bai, eh! Bihotz bihotzez muku haundi bat Goizuetako biztanleei, eta kamarero izugarri horiei. AUPA GOIZUTA!

Odei - Irujo - Begoki

\*\*\*

**Babes ditzagun gure seme-alaben hizkuntz eskubideak ere**

Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilpena arautzeko abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretua eta honen garapena arautzen duen urtarrilaren 8ko Erabakiak onartu direla eta Oronozko Eskola Publikoko Kankan Guraso Elkarteak otsailaren 15ean burutu den bileran hau azaltzea onartu du:

- Gure desadostasuna lege honekin Nafarroako hizkuntz propioa den Euskara, erdararekin batera (18/1986 Foru Legean «Ley del Vasconce»-an zehazten da) erabiltzeko eta ezagutzeko eskubidea larriki murrizten bait du.

- Akordio honek eragin zuzena du Nafarroako gizartearen eta gure hizkuntzan bizitzeko dugun eskubidea ukatzen digu.

- Erabaki honek euskarari Nafarroan behar duen babesa kentzen dio eta gure ama hizkuntzaren desagertapenaren lehen pausua da.
- Gure seme-alaben hizkuntza eskubideak errespetatu eta bermatzea Administrazioaren betebeharra da.

BITTOR ELIZAGOIEN

ORNOZKO ESKOLA PUBLIKO  
KANKAN GURASO ELKARTEKO  
PRESIDENTEA

\*\*\*





Diario de Noticias 01eko martxoak 15

«Kubako Lagunen saria irabazteak asko harritu nau, margolana orain dela lau urte aurkeztu bainuen. Duela aste batzuk sariaren berri jaso nuenen, ez nintzen koadroaz oroitzen ere».

**Kontxi ARRIZURIETA**  
Leizako artista  
Diario de Noticias 01-03-15

eustea ez da posible, ezin da jasan. Goizeko bostetan jaiki, seiatan irratian sartu, hamararik arte lan egin, hamalik telebistara, eguerdian etxera joan, lauretan itzuli eta gaua arte lanari aritzen nintzen. Eskerrak utzi nion erritmo horri eta orain astan behin joaten naiz telebistara»

**Itziar ALDUNTZIN**  
Leizako kazetaria  
Egunakaria 01-03-15

«Lehengi lan erritmoari

◆ **Moldatuko ote zara euroarekin zure lanean?**

◆ Orain arte pezeta eta liberekin kanbioak egitera eta zentimoekin aritzera usatuak gara, eta ez diot sobera beldurrik euroari.

◆ **Zer duzu gustokoena lanean?**

◆ Jendeak nere lana estimatzen duenean gustura sentitzen naiz: «ze tortilla goxoak», «bertze batean itzuliko gara» edo halakoak aditzeak lan huntan segitzeko gogoak ematen nauzki.

◆ **Zer eginen zinuke diruarekin sobran bazinuke?**

◆ Behar dutenei laguntza eman: hurbilean ikastolak lagundu eta urrunvego ganez ere bada nola ongi enpleatu dirua.

◆ **Mexikotik ailegatu berria zara. Zer inpresio ekarri duzu?**

◆ Aski interesgarria iduritu zait, baina bertze aldetik diferentzi haundiak dira aberatsen eta gainekeen artean, eta batez ere indigenekin.

◆ **Egia da Marcos subkomandantea ikusi duzuela?**

◆ Bai, Pueblan ginelarik harat ailegatu zen zapatisten martxa eta hurbiletik ikusteko aukera izan ginuen. Emozionantea zen hango jendeak zuen ilusioa.

◆ **Eta gerostik, mariachiak edo trikitixak?**

◆ Momentu huntan «Los cadetes de Linares» zozotuta naute.

◆ **Eta zer diote «las chamacas mexicanas»?**

◆ Chamaquita bat eramaki nuen nerekin eta berarekin aski nuen.

◆ **Ze lore oparituko zenioke zure neskari?**

◆ Xulufin xorta bat.

◆ **Erreala edo Osasuna?**

◆ Ez dut futbola segitzen, kirola baino gehiago negozio bat dela iduritzen zait. Baina bat aukeratzekotan Osasuna hartuko nuke.

◆ **Janari eta edari gustuoenak?**

◆ Edateko ura (ez irrik egin) eta jateko patata-tortilla xingar magrakin.

◆ **Lo egiteko pijama, kaltzontziloak edo biluzirik?**

◆ Kaltzontziloa. Pijama ez dut maite eta biluzirik dinbi-danba ez da batere goxo.



**Mikel MITXELENA**

Berteroa  
ZUGARRAMURDI

**Lanchas**

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera ☎ 948630735

**ZALAIN**  
Zalain Auzoa  
☎ 948631106  
BERA

EGUNERO AGENIA 7ER KATIA

**Beda eta bankoteak ematen dira**

**LABE ZAR**  
☎ 948631076 • BERA

**SALAZONES UDANA, S. L.**

**Importaziozko lehen kalitateko bakailu gaztina**  
**Bakailu gezatua eta bougelatua, erabiltzeko prest**

Alkaiga ind. • Banarta, 8 - 23. pabiloia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

**PINTURAS LEGUIA S.L.**  
Rafa: 600 819 640  
Jose: 666 235 466  
Eztegara 26, 2.C - BERA

**Iriarte-Echandi, s.i.**

- Aholkularitza
- Artekariatza
- Aseguruak

Kanttonberri 1 • BERA • Tel eta Faxe: 948 631169



# Hiru milioi pezetako sari nagusia izanen du Bertizko Natur Parkea Margo lehiaketak

Nafarroako Gobernuak Bertizen kalitatea eta irudia zabaldu nahi ditu

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak, Etxebizitza, Ingurumen eta Lurralde Antolamenduaren eskutik departamentu honentzako ez ohikoa den ekimen berri bat sortu du, Bertizko natur parkea pintura lehiaketa.

Marcotegik zuzentzen duen departamentuak kultura eta natura uztartuz natur parkearen irudia berpiztu edo berrindartu nahi du eta lehiaketa hau sortzea iruditu zaió modurik egokiena. Izan ere orain aipatutako helburuez gain Gobernuak Bertizko natur parkearen kalitatea eta irudia Espainian zabaltzea eta bidenabar gure eskualdeko jarduera kulturala altxatu edo laguntzea aipatu ditu lehiaketaren ondorio onuragarri bezala. Horrexegatik lehenik eta behin gobernuak dirutza ederra paratu du lehenbiziko sariarentzat, 3 milioi pezeta, horrelako lehiaketetan aurki daitekeen haundienetakoa.

Aurrerantzean man-



Bertiz bisitatzen dutenek margolan onenak bozkatuko dituzte. Artxiboa

tentzeko ideiarekin sortu den lehenbiziko lehiaketa hau Espainiako edo bertan bizi diren artistei zuzendua dago. Lan guziek inoiz argitaratu edo saritu gabekoak izan behar dute. Lanak maiatzaren 4ko arratsaldeko 6ak baino lehen aurkeztu beharko dira Bertizko natur parkeko palazioan. Palazioko ordutegia goizeko 10etatik 1etara eta arratsaldeko 4etatik 6etara da, eta informazio gehiagorako 948 592387 telefonora dei-

tuz edo honako e-mail helbidean: gavr.odbertiz@sarenet.es

### PARKEA BISITATZEN DUTENAK BOZKATUKO DUTE MARGOLANIK ONENA

Aurkeztutako lan guziek orijinalak izan behar dute, gehienez 80 x 90 zentrimetoko tamainarekin eta estilo edo teknika librean. Nola ez, izenak berak dioen bezala margoaren gaiak Bertizko jende, natura, edo paisaiak ukitu be-

haruko dituen nahitanez.

Irabazlearen izena erabakitzeke, Ingurumen departamentuak berak aukeratutako 8 lagunez osatutako epaimahaia bilduko du. Honen burua Nafarroako museoko zuzendaria izanen da eta gainerakoak, artistak edo margolaritzan adituak. Hauek lan guzien artean aurreauketara egiten dute maiatzean, udan erakusketa egiteko.

Epaimahaikoen bo-

toez gain heldu den uztaile eta abuztuaren lan guziaz Bertizen paratuko baitira ikusgai, eta parkean agertzen diren bisitari guzietan izanen dute beraien lan gustukoena bozkatzeko modua. Ondorioz, irailan, erakusketa itxi ondotik, bozka hauek bildu eta epaimahaikoekin batera paratuko dira, denen artean irabazlea zein den erabakitzeke.

Lan hauek alde batetik bertzeri ibili behar direla kontutan hartuz, antolatzaileek margoak ahalik eta hobekien bilduak eta zainduak aurkezteko gomendatzen dute. Autorearen edo galeriaren baten firma duten margoak ere baztertuko dira. Honez gain margoaren estalkian argi idatzi beharko dira, lanaren izen eta tamainak, egilearen izen-abizenak eta helbidea, telefonoa edo kontaktua. Autoreek, parte hartze boletineko 3 kopia, lanaren argazkia, artistaren kurrikuluma eta aukeratutako gaiaren sinopsia gehitu beharko dituzte.

**bortzirUDI** **BERA**

FOTOKOPIAK • PAHITTEGIA • DISEÑO / GRAFICOA  
 ENBLAGENAZIOAK • ARGAZKI MUNTAIK • INPRINTA LANAK  
 PLASTIBAZOAK • ERROTULOAK • SERIGRAFIA  
 FAXA / E-MAILA • PUBLIZTATEA  
 SKANERRIA

Eztegarra 26 behea Tel.- Faxa: 948 63 15 21

**J. RAMOS**  
 Zolak akutxilatu eta barnizatzen ditut

© 948631342 BERA • © 948637172 LESAKA

**Alberto RETEGI**  
 abokatua

Altzate 17  
 BERA  
 © 948 630 763

**SAROB**  
 okindegia

SANDERS Pentsuak  
 Eztegarra 41, Tñoa: 948 630 699 - BERA

**zapatadenda.**  
**kalotxa.**  
**osagarriak.**  
**konponketak.**

Legia 36 Bera 31780 Nafarroa 948 631516



# Bortziritako espedizioa apirilaren 1ean abiatuko da Shisha Pangmara

Maiatzaren lehendabiziko astean saiatuko dira gailurrera goitzen

ASIER GOGORTZA

Heldu den apirilaren 1ean aterako dira Bilbotik Andoni Zulaika zestoarrarekin batera Shisha Pangma espedizioa osatzen duten lau mendizale beratarrek: Xabier Zubieta, Loro Pikabea, Patxi Pikabea eta Sabino Korta. Bidaia handi xamarra egin beharko dute Tibetera ailegatu aitzinetik: Bilbo, London, Carachi, Katmandu eta azkenik Lhasa, Tibeteko hiriburua. Hortik furgonetetan abiatuko dira oinarriko kanpamendura, 5.500 metro inguruko alturan kokatua.

Bolada bat beharko dute hango girora moldatzeko, eta gailurra maiatzaren lehendabiziko astean goitza aurkusi dute. Alpino moduan iganen dute 8.046 metroko mendizarra, hau da, oinarriko kanpamendutik gailurrera etapa bakarrean joan diren, zama guziaz bizkarean hartuta. Horrela, 2.500 metroko desnibela gaingitu beharko dute atsedean hartzeko bibak bakarria eginez.

Espedizioak irauten duen denboran Martiko Shisha Pangma 2001 espedizioa kideekin hurremanetan egoteko modua izanen dute lagun



## Beti Mozkor taldekoek afaria egingen dute apirilean

Ez da atzo goizekoa danborrada berexi hau. Berako bestetan ateria da argazkia, llekuetan hain xuxen, eta hor ageri direnetarik aunitz orduztik honat dexente koxkortuak dira, bainan seguraski ere ezagutuko dituzue ongi begiraturaz gero.

Kontua da BMT (Beti Mozkor Taldea) heldu den apirilaren 14an elkartuko dela berriz Zubiondo jatetxean afarixka bat egiteko. Izena eman nahi duenak jatetxera bertara deitu beharko du, 948 625 472 telefonora. Hona taldeko kide batek egiten duen deialdia: "Hainen gaitxuek/ hainen zerrendak/ berriro elkartu behar gera/ afaritxo bat egiteko izanen dugu aukera".

eta senideek. Izan ere, mendizaleek web orrialdea prestatu dute bidaiaren berri emateko, eta e-mail bidez mezuak trukatzeko.

## Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finala

Apirilaren 1ean jokatu-

ko da Eztegarra pilotalekuan, arratsaldeko 4,30etatik aitzinera.

## Gure Txokoako Batzar Orokorra, martxoaren 23an

Elkarteak urtero egiten duen batzar orokorra ortziral honetan izanen da lamotenean, arratsaldeko zazpiterdietatik ai-

tzinera. Bertzeak bertze ibardingo bentekin sinatu duten kontratua eta Zuzendaritza Batzordearen berrikuntza izanen dituzte mintzagai. Joan den urteko elkarrearen aktibitateez ere ariko dira solasean, eta bazkide edo herritar guziaz daude gonbidaturik.

## Flash

### Udaleko zergak

Apirilaren 11ra arte zabalik da 2000ko azken hiru hilabete- etako uraren ordain- agiria ordaintzeko borondatezko epea. Gainerakoan, epez kanpo gelditzen direnei exekutibo bidez kobratuko zaizkie gastu hauek, dagozkien errekar- guekin.

### Futbolin txapelketa

Ortzegunero Pui ost- atuan izanen dute hitzordua futbolin- zaleek. Joan den as- tean jokatu ziren le- hen partidak eta le- sakar batzuek era- man zuten lehen sa- ria. Bikote bakotzak 250 pezeta ordaindu behar ditu izena ematerakoan, eta ira- bazleek afari bat ira- baziko dute Zubion- do sagardotegian.

### Itsaso Tapiaren idazlan bat saritu dute

Nafarroan barnako Ibilbide Kulturalen XX. edizioaren bai- tan Jesusen Bihotza ikastetxeko Itsaso Tapiak saria jaso du bere idazlanarengat- ik.

### Klown ikastaroak

Asteburu honetan hasiko dira Kultur Etxeak klown has- taren ikastaroak, eta apirila eta maiatzean zehar saio gehiago egingen di- tuzte.

**Javier Manterola**  
TEKNIKO  
INSTALATZAILEA  
Iturgintza • gas • kolektiboa  
Tfnoa: 948 630 031 • BERA

**Laudio pinturak**  
Barna eta  
koopulda.  
Aurrekontu  
koopulda gabe  
Tel.: 948631602-610627059

**ALZURI**  
• Sukalde tresneria eta opariak  
• Landare eta loreak  
Tel.: 948 630 370 • BERA

**Botox OSTATUA**  
Tel.: 948630052 • Zalaia • BERA



# Igerilekua udan eta ostatua urte osoan hartzeko lehiaketa egin du Herriko Etxeak

Incansables txarangak kontzertua eskainiko du apirilaren 1ean plazan

**Artor AROTZENA**

Uda honetan udal igerilekuaren kudeaketa hartzeko lehiaketa deitu du Udalak. Hase-rako prezioa 2.932.640 pezetakoa da (BEZ barne) eta proposamenak martxoaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira. Bertzalde, igerilekuko ostatua hartzeko ere lehiaketa egingen du Udalak. Hasierako prezioa, urteko 318.000 pezeta (gehi BEZa) da eta martxoaren 2a baino lehen aurkeztu behar dira proposamenak.

## Incansables txarangaren kontzertua

Incansables txarangak kontzertua eskainiko du apirilaren 1ean, igandea, eguerdiko 1etatik aitzinera plazan. Lehendik karririk karririk ibiliko dira beraien musika doinuak hedatuz. Lesakako Musika Bandak antolatuta dute ekitaldi hau.

## 40 lagunek eman zuten odola

Martxoaren 14an, Nafarroako Odol Emaitzen Elkarteak odola emateko egindako deialdiari berrogei lesakarrek erantzun zioten. Hameka urte badi-tuzte herrira etortzen eta, normalean, urtean bi al-



## Beti Gazteko neska futbolariak berriz ere Lesakan

Bizpahiru urte dituzte futboleko entrenatzen Beti Gazteko neska gazteek, Juana Aleman eta Idoia Etxepareren aginduetara. Baina denbora honetan, Kontxako hondartzako txapelketan bakarrik jokatu dute eta herritarrek ez zuten, Donostia joan ezean, jokatu ikusteko aukerarik. Martxoaren 10ean, ordea, Gipuzkoako Kopan hasiak dira, zela handian eta hemendik aitzinera, Mastegin maiz xamar ikusteko aukera izanen da. Lehen partidu hori 0-7 galdu zuten Oiartzun talde handiaren kontra, baina jokalariek guztiak hagitik gazteak direla kontuan hartuz, pixkanaka jokuan hobetzen eta emaitza txukunagoak lortzen joan dira, dudarik gabe. 1988-89 denboraldiaz geroztik ez zen Beti Gazteko nesken talderik futbol handian. Argazkia: Karmela

diz etortzen dira. Beti bezala, Osasun Zentroaren aitzin aldean jarri zuten ibilgailua. Odola ateratzen aritu ziren erizainak gustora ageri ziren lesakarren borondatearekin, baina jende gazte gutti hurbiltzen dela azpimarratu zuten.

## Zahar-Etxe zaharra botaria

Joan den aste horretan, Andra Mari Zahar-Etxe zaharra bota zu-

ten. Aspaldian erortzeko arriskuan zegoen garai bateko erresidentzia. Momentuan, aparkatzeko lekua utziko da bertan. Garai batean, eremu horretan kiroldegia egiteko asmoa zegoen, baina onartutako azken hirigintza planaren arabera etxebizitzak egingen dira.

Dagoeneko etxebizitzak egiteko lanean hasia dena Zosimo Zaratiegi eraikitzailea

da, Villa Isabel eta gasolindegia arteko zelaian. Jakina denez, babes ofizialeko etxebizitzak egingen dira.

## Joxe Jabier Taberna eskuz banakakoan

Bigarren mailako eskuz banakako txapelketari ekin dio Joxe Jabier Taberna pilotariak. Martxoaren 12an Tolosan jokatuak partidan 22-21 irabazi zion Muruamendiaraz-eri.

## flash

### Korrika Kulturala

Larunbat honetan Txan Magoaren emanaldia izan zen Koskilla ostatuan eta heldu den larunbatean, martxoak 24, arratsko 8,30etatik aitzinera Hika antzerki taldearen «Arraultze delikatuak» antzezlan ikusgai izanen da Kasinon. Lesakako Korrika Butzordeak antolatu ditu bi ekitaldiak.

### Haika taldearen aldeko manifestazioa

zapuztu zuen martxoaren 9an guardia bilak. Aste horretan, gazte talde horretako 15 kide atxilotu zituzten eta Baztan-Bidasoako Haikak deitua zuen manifestaldia. Guardia Zibilek ordea, pankarta indarrez kendu eta manifestazioa galarazi zuten.

### Erasoa BBVA bulegoaren kontra

Martxoaren 11ko goizaldeko ordubata aldera ezezagun batzuk BBVAren bulegoa erasotu zuten. Atea xehetu zuten, baina ez zuten ber-tze ondoriorik utzi.

**BEKO ERROIA**  
Lore eta landareak  
© 948 63 78 26  
Frain auzoa • LESAKA

**Deñe**  
LENTZERIA  
MERTZERIA  
Tfnos : 948 627 514  
Behoko Plaza 8, LESAKA

**Amara Berria**  
Biltza 41 • 948 637518-LESAKA

**KATTU**  
ostatu - jatetxea  
Plaza kobinatua eta menak  
© 948 637573 - LESAKA

**kixkur**  
ileapaindegia  
Tel: 948 637429  
Bittiriako Plaza, 3 behe  
LESAKA



## ETXALAR

# Jende andana bildu du antolatu berri den aerobik ikastaroak

Ainara Arburua izanen da Altxatako lehendakari berria

JOSEBA ETA NEREA

Iliauterien gehiegi-keriak leuntzeko asmoz, gazte talde handi bat bilduko da gimnasia egitera, musikaren erritmora. Andre Mari elkartearen bidez Itxaso Olaskoaga irakasleak antolatu du herriko gazteen interes handia sortu duen ikastaro arrakastatsua. Hori, apuntaturiko 20 gazteek (denak neskek) erakusten dute. Astean bitan biltzen dira Landagain eskolako patio itxian 18:15etik 19:15ak bitarte. Momentuan astearteetan eta ortzegunetan ari badira ere, astelehenetara eta ortzegunetara pasatzeko intentzioa dute. Hala ere, ez dira gazteak gimnasia egiteko gogoan duten bakarrak. Emakume batzuk ere pentsatuta dute talde bat sortzea. Dena den, ikastaroa irekia dago apuntatu nahi duen guzientzat, beraz oraindik garaiz zaude!

## Altxataren batzar orokorra

Martxoaren 11n Altxata kultur elkarteak



Musikaren erritmora mugitzen du gorputza argazkiko neska taldeak.

Argazkia: Nerea Mitelezarena

batzar orokorra burutu zuen. Elkarteak dituen 100 bazkideetatik dozena bat inguru bertzerik ez zen bildu. Hauek eztabaidatutako gaien artean azken batzarraren aktaren onarpenera, iazko kontuak, aurtengo aurrekontua, egoitzaren beharra eta juntaren berrietzea zeuden. Junta berrietzeari dagokionez, ez da kide berririk sartu baina lehendakaritzan aldaketak egon dira. Orain arte Patxiku Iri-sarrik bete duen lana

Ainara Arburua hartu du. Bertzalde, aipatu 1.700.000 pezeta inguruko aurrekontua duela eskuartearen aurreburutuko diren ekintzetarako. Hameketakoarekin akautu zen aurtengo batzarra.

## Urdaiazpiko txapelketa

Larraburua jubilatutako elkarteak urte berriaren batera eman zion bukaera mus eta partxis txapelketari. Hala ere, bertze sariketa bati eman

zion bide ondokik; urdaiazpiko txapelketari. Igandero jokatu dituzte partidak. Azkenean, martxoaren 11n jokatu zen Larraburuan finala. Musean, Teodoro Perugorria eta Jose Antonio Indaburuk Santiago Olasagasti eta Joxe Mari Bernuetaren kontra jokatu zuten eta azken hauek izan dira irabazleak. Partxisean irabazleak Milagros Santesteban eta Feliziana Zubieta izan ziren. Sariketa eta afaria egin zuten gero.

## Flash

### Kontzertua Herriko Ostatuan

Martxoaren 10ean kontzertu arrakastatsua eskaini zuen "Sargento Piperra" taldeak. Talde honek lehenago ere Etxalarren jo izan du, "Los Dinosaurios" izena zuela. Herriko jendeaz gain, kanpotar andana bat ere bildu zuen musika-emanaldi honek eta giro polita sortu zen.

### Dantzari arropak prestatzen

Altxata kultur elkartearen aurtengo asmoetariko bat Andre Mari dantza taldeko neska nagusienekin soinekoak egitea da. Horretan buru-belarri dabilza Altxatako kide diren M<sup>o</sup> Asun Olagarai eta Birjina Arburua. Doneztebeko jostun baten laguntzaz josiko dituzte erositako telak. Herriko bertze emakume batzuen laguntzaz blusetan beharrezkoak diren bainnikak, gonazpi-koak, etab. eginen dituzte. Seguro aurtengo bestetan inoiz baino dotoreago ikusiko ditugula herriko dantzariak.



**BORTZIRI**  
UNSION ANAIAK  
sukalderako haltzariak

ERAKUSKETA

Bereau etxea • LESAKA  
Tel eta Faxa: 948 637 266

## OBRA PROIEKTUAK

- ✓ Etxe berriak eraikitzeko
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udendako aholkularitza-zerbitzu hirigaitza lanetan

**BIDASOA**  
arkitektura bulegoa

Biltzina, 45 • 948 637 503 • LESAKA



**Ioredenda**

Albistur, 39-K  
948 627542  
LESAKA

- bitxikeriak •
- opariak •
- enmarkazioak •



**IGANTZI**

# Erabaki garrantzitsuak hartu ziren Biltokiko urteko batzarrean

Bazkideen kuotak bikoiztu egin dira eta sukaldea moldatuko da

OSKAR TXOPERENA

Batzarre mamitsua aurtun Igantziko Biltoki Elkartearen egin dena. Hasieran urteko kontu eta ekintzen berri eman zuen Juntak, ondotik bazkideen aldaketak ere aipatuz. Gai horiek eta bertze zenbait zehetasun alde batera utzita, batzarreko gai mamitsuenei heldu zieten beratarutako 60 bazkideek: kuoten eguneratzea, egoitzan egin beharreko obrak eta Junta berritzea. Hamar urte bazkituzten bazkideen kuotak bere horretan, eta, aumitz eztabaidatu ondotik, bikoiztea erabaki zuen gehiengoak, hau da, orain arte ordaitzen ziren 3.000 pezetatik 6.000tara pasatzea. Aspaldian zebilen harat eta honat egoitzaren moldaketaren gaia ere. Juntak momentuz su-



## Mendi Bizikleta Ibilaldia antolatzen dutenen afaria

Irailako Mendi Bizikleta Ibilaldia da Biltokik antolatzen duen kirol ekitaldietako bat, jende multzo polita behar izaten duena gainera. Iazko probaren ondotik afaltzeko elkartu zen taldea duzue argazkian, lagundu zuten guztiak agertzen ez badira ere.

Argazkia: Oskar Txoperena

kaldea bakarrik moldatzeko proposamena egin zuen, 3.500.000 pezetako aurrekontuarekin. Ez zen gai honetan ere eztabaidarik faltatu, baina azkenean, gehiengoak obrei oneritzia

eman zien eta bazkide bakoitzak ordaindu beharreko 15.000 pezetak hiru zatitan emateko aukera izanen du. Azkenik, Juntaren zenbait partaide aukeratu ziren: Josetxo Txoperena iza-

nen da hurrengo bitartean lehendakariordea, Itziar Mitxelena idazkaria, Ainhoa Antxordoki diruzaina eta Mikel Arburua, Eleuterio Migelena eta Joxean Hita bokalak.

## Kooperatiban ere bilkura

Martxoaren 3an egin zen San Juan Xar Nekazari Kooperatibaren bilkura ere. Bi gai izan ziren aipagarrienak: Alde batetik, Kooperatibak bere bazkideei nekazal esplotazioen legalizazioa egiteko eman nahi dien aukera –denak batera eta kooperatibaren bitartez–, eta bertzetik, orain dela gutti arte kooperatiban bertan egiten zen botika salmentaren debekuari bilatzen ari zaion aterabidea, nekazariak bertatik ahalik eta guttien mugitzeko.

## Joxe Mari Goia

Indartsu hasi du aurtengo denboraldia Joxe Mari Goia Galartakoa. Martxoaren 4ean Domeñoko laisterketa irabazi zuen, eta ez nolabait aherioen aurka (Roberto Valcarlos 2. izan zen). Euskadiko Openean ere, Juan Carlos Garro beratararrak irabazitako laisterketan, seigarren postu bikaina lortu zuen.

**ANTZUZELAKI S.L.**

lurgu errep. - BERA - Tel. 948-631317

**HARRI NATURALA**

**ATERATZEA eta LANTZEA**

Antzeriak	Tasak
Argazkiak	Elizak
Orkestrak	Abuzak
Lanak	Zukak
Antzeriak	Orkestrak
Abuzak	Musikak
Plazak	

Manikak / Muzika  
Zuzen zuzenak / Erakundeak

**ZINTARRIAK  
ADOKINAK  
ZOLAK**

**XATURETXEA**

**ZABIAK  
JATETXEA**

Tfnos: 948637027 LESAKA

**IRU BIDE**

LESAKA

Tfnos: 948 637 127

**EDARRIAK**

**MANUEL TABERNA S.L.**

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

**DROGUERIA MOLINERO**

• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARRIAK •

*2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina  
10 minututan zuk nahi duzun kolorea  
Profesionalentzat prezio berezia*



**ARANTZA**

# Nafarroako Herri Kirol Jolas txapelketan ari dira aurten ere herriko neska-mutikoak

Igandean txapelketako saioa burutu zen Arantzán

ELIXABET ETA GARBINE

Urtero bezala, aurten ere Nafarroako Kirol Jolasen barnean antolatutako herri kirol txapelketan parte hartzen ari dira herriko neska-mutikoak. Martxoaren 11n Lakuntzan jokatu zen lehendabiziko saioa eta herrikoek haur eta kadete mailako proba konbinatuan hartu zuten parte. Haur mailakoak laugarren izan ziren, bortz talderen artean (Arantzakoekin batera, Lakuntza, Altsasu eta Etxarri Aranazko Muxarrak eta Arranoak taldeak ari dira). Kadete mailakoak hobekiago aritu ziren lehen saio horretan, zazpi talderen artean bigarrenak izan baitziren (Arantzakoekin batera Berriozar, Ultzama, Lakuntza, Altsasu, Txantreako Eunate eta Etxarri



Luz Ardidenera egindako ateraldian ederki ibili ziren gazteak.

Aranazko Andra Mari ari dira). Proban gailendu zen Berriozar taldeak 9 minutu eta 29 segundu behar izan zituen proba burutzeko, arantzarrak baino hamar segundu guttiago.

Hurrengo txanda igande honetan, martxoak 18, jokatu da herrian. Hirugarren jardunaldia martxoaren 25ean Berriozarren izanen da eta laugarrena apirilaren 1ean Altsa-

sun. Txapelketaren final nagusia apirilaren 8an jokatu da Etxarri-Aranazen.

**Herriko gazteak elurretan**

Herriko Gazte taldeak

antolatutako, martxoaren 10 eta 11ko asteburuan Luz Ardiden mendira joan ziren eskiatzera. Hogeita bost gazte osatutako taldea autobusean abiatu zen lurrunbat goizaldean, lurrunbat gaua inguruko hotel batean pasa ondoren, igande ilunabarrean bueltatzeko. Eguraldia lagun zutela ibili ziren elurretan.

**Pistak moldatzeko proiektua onartu du Nafarroako Gobernuak**

Mendietako pistak moldatzeko proiektua onartu du azkenean Nafarroako Gobernuak. Iragarkia Boletinean eta prentsan publikatu orduko, datorren aste aldera, obraren lehiaketa deialdia egingen da, nahi duenak hartu. 100 milioiko aurrekontua izanen du lan honek.

**JATONE - GOZOTEGIA**  
  
 Arzaba 19-94553795 - GICRA

**ALBERGIA JATETXEA**  
  
 948 634179  
 ARANTZA

**KATER - BIKE**  
  
**Bizikleta Tailerra**  
 errepede, mendi, trekking eta haurrentako bizikletak  
 Arropa eta osagarriak  
 Salmenta eta konponketa

**LESKA**  
  
 LESKA

**TOLDOAK** SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIRUA-ERROTULAZIOA  
 Eguzkitik babestekoak (elektroko edo eskuzkoak) • Toldo mugikorak • Igerilekuetako sareak • Kamioentzako toldoak • Estutzeko uhalak • Aluminio, PVC, Egurra eta Seguridatekoak • Motorizatuak pertsianak altxatu eta jausteko • Kontraleihoak • Estoreak • Eulien kontrakoak...  
 948 63 10 03  
 Fax: 948 63 10 03  
 Alkaiaga Ind-Baldrun, 8 • LESAKA - BERA  
**PERTSIANAK**  
 ERA GUZTIETAKOAK, MOTORIZATUAK, ESTOREAK

**ola**  
**SAGARDOTEGIA**  
 250 lagun eserita  
 Klimatizatua  
 Sagardotegi menua  
 102 Meaka auzoa  
**20304 IRUN**  
 Tel: 943 623 130



# Nafarroako Haur Kantari txapelketako kanporaketa larunbat honetan egingen da

Bazan-Bidasoako futbito txapelketaren finala, berriz, igandean jokatu da

TTIPI-TTAPA

Larunbat honetan, martxoak 24, arratsaldeko 6etatik aitzinera burutuko da Doneztebeko Bordatxo dantza-lekuan Nafarroako Haur Kantari txapelketako kanporaketa. Doneztebeko saioan, batez ere inguru honetako kantariak ariko dira. Lesaka, Bera, Irurita, Doneztebe, Larrainzar, Goizuetta, Arano eta Beteluko hogeitau talde, bikote eta bakarlarik ariko dira kantuan, guztira 120 haur eta gaztetxo inguru. Lodosan martxoaren 10ean eta Irurtzumen 17an (Leitza eta Aresoko kantariak bertan parte hartu zuten) saioen ondotik burutuko da Doneztebeko. Ondotik, martxoaren 31n bertze saioa egingen da Ariben. Puntuazioaren arabera, hogeitau talde, bikote eta



Eskualdeko kantari gaztetxoak ariko dira larunbatean Bordatxon.

Artibekoa

bakarlarik sailkatuko dira apirilaren 8an, goizeko 11etatik aitzinera Iruñeko Gaiarre antzokian egingen den finale-rako. Sarietarako, kategoriatu eta modalitate bakoitzeko lehenengo bientzat izanen dira.

Bertalde, aurtun Euskal Herriko Haur Kantari txapelketaren finala jokatu da ekainaren 9an Hernanin. Nafarroatik, herrialdeko finalean epaimahaiak hautatuko dituen hiru ordezkari joanen dira. Epaimahai

Arantza Ezkurra, Burlatako Musika Eskolako irakasleak, Mikel Juaniz, Barañaingo Musika eskolako irakasleak eta La Pamplonesako kideak eta Amaia Zubiria abeslariak osatuko dute.

## Bazan-Bidasoako futbito txapelketaren finala igandean

Kirolarlan ere izanen da zer ikusi aste honetan. Igandean, arratsaldeko 6etatik aitzinera, jokatu da udal kiroldegian Erreka elkartek bederatzigarren urtez antolatutako futbito txapelketaren final nagusia. Azken hiru urteotako txapeliduna, herriko Titi Ostaturia izanen da finalista bat eta bertze, Elizondoko Goizalde Ostaturia. Hase-rako fasean, bi finalistak multzo berean egokitu ziren eta partidua bana irabazi zioten elkarri. Golen aldeari esker, Elizondokoak izan ziren multzo buru eta Titi bigarren, baina finala berezia da eta ikusi behar zer gertatzen den.

Ordubete lehenago hirugarren posturako lehia jokatu dute Lesakako Haizegoa eta Elizondoko Txokoto ostaturiek.

**GAZTANDEGIA**  
  
**LIZUN** Etxeko Ardi Gazta  
 Petenekoborda • Tfnoa: 948 450 882 • SUNBILLA

**PREMIAZKO KONPONKETAK**  
**IGELTSERITZA OROKORREAN**  
 Tel.: 600 407 408

**ERAIKUNTZAK eta MOLDAKETAK**  
**JOSEMA**

**APARAN, S. A.**  
**BRIKOLAIA eta ZURAK**

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133  
 948 451 541  
 Faxa: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

**FUNERARIA ZERBITZUAK**  
**Lesaka-Donztebe**

**MALDAERREKA, S.L.**

24 orduko zerbitzua  
 Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritara trasladoak  
 Tfnoa: 948637404 • LESAKA  
 Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE



**KIROLA**

**ADINEKOAK**

# 726 milioi pezeta inbertitu nahi dira eskualdeko kirol instalazioetan

2000 eta 2003 urteen artean egingen dira Baztan-Bidasoan

TTIPI-TTAPA

Baztan, Bortzirriak eta Malerrekako hamasei udalek kirol instalazioetan 726.106.161 pezetako inbertsioak aurrikusi dituzte hurrengo hiru urtetarako. Honela jakinarazi zuen Nafarroako Kirol eta Gaztediaren Institutuak martxoaren 8an Lekarozen egindako bileran.

2000-2003 urteen artean 24 obra egin nahi dituzte hamasei udal horiek. 2000. urtean, Nafarroako Kirol eta Gaztediaren Institutuak Arraiozko pilotalekuaren moldaketa lanak subentzionatuko ditu. 2001 eta 2001 urteetan hasi eta Institutuaren dirulaguntza jasoko duten lanak hauek izanen dira: Arantzan pilotalekuaren aitzinaldea moldatu, Berako kiroldegian gimnasioa egin, Doneztebeko pilotalekuaren moldaketa eta kiroldegian squash pista eta arte martzialak (judo, karate...) egiteko aretoa eraiki, Oitz-en lokala moldatu eta pilotalekuko aldagelak



**Aurtizko pilota txapelketaren finala igandean jokatu da** Igande honetan, martxoak 25, eguerdiko 12ak aldera jokatu da Aurtizko Ostuak laugarren urtez antolatutako eskuz binakako pilota txapelketaren finala, auzoko Koianea Ttikia pilotalekuan. 11etan jokatu da hirugarren posturako lehia eta ondotik izanen da final nagusia. Hamabi bikotek hasi zuten aurtengo txapelketa eta joan den igandean jokatu dira finalerdiak: Retegi eta Olazabal beratarak, Altzugarai eta Ordokiren kontra, alde batetik. Bertze aldetik, Agesta eta Errandonea, Mugikaren ordez aritzekoa zen Matxitene eta Makatzene lesakarren kontra aritzekoak ziren.

bertan egin, Urrotzen ere pilotalekuko aldagelak egingen dira eta Elizondon, biltzen den estalkia izanen duen igerilekua eraikiko da. Aitzineko hirurtekoan, 1997-1999koan, hamar udalek jaso zuten 281 milioiko dirula-

guntza hamabi lan egiteko: Arantzan pilotalekua moldatu; Beran gimnasioa egin kiroldegian eta igerilekuan eta tenis pistak moldaketak egin; Etxalarren pilotalekua moldatu; Igantzin pilotalekua handitu eta estali; Do-

nezteben kiroldegia eraiki; Labaien pilotalekua moldatu; Legasan pilotalekua estalia egin; Zigan pilotalekua moldatu; Elizondon kiroldegia moldatu eta gimnasioa egin eta Oronozen frontoia moldatu.

## Arkupeak elkarteak Tuter eta ingurua bisitatuko du martxoaren 29an

Arkupeak Jubilatu, Pentsionista eta Alargunen Elkarteak Tuter eta ingurua bisitatuko du martxoaren 29an. Goizean bodega batzuk bisitatuko dituzte eta 14:30etan bazkalduko dute Castejon hotelean, honako menu honekin: Ajillora egindako pikillo piperrak, xixa eta magra nahaskia, kalamarrak erromatar erara, garaiko barazki menestra, umerria patata panadera eta kogiloekin, txanpain kopa eta tarta izozkiarekin. Etxeko ardo beltz eta gorriak, ura, kafea eta kopa ere izanen dira. Bazkalondoan, arratsaldeko 5etatik 7etara dantzaldia izanen da.

## Adintuendako oporrak IMSERSOren eskutik

Urtero bezalatsu, adintuendako oporrak antolatu ditu IMSERSO erakundeak. Andaluzian, Balear Irletan, Katalunian eta Valentzian hamabortz edo zortzi eguneko egonaldia izanen dira aukerak, Murtzian hamabortz eguneko egonaldia izanen da eta Kanariar irletan eta Portugalen, berriz, zortzi egunekoak. Eskariak aurkezteko epea martxoaren 31n akautuko da. Informazio gehiago Gizarte Zerbitzuetan (948 635036, Bortzirriak), (948 451770, Malerreka), (948 510840, Leitzaldea) edo 948 580006 (Baztan).

**MINDEGIA TRIKIDANTZ**

- EZKONTZAK
- KINTO BESTAK
- INAUTERIAK
- BESTAK

© 948451507 / 646298568 / 659.379917  
ITUREN

**ETXANDI TXOKO**  
jatetxea

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN / Tfnoa: 948 45 04 91

**BELARRA**  
OSTATUA - JATETXEA

Areatza karrika • DONEZTEBE  
Tfnoa: 948 45 03 06



**GOIZUETA**

# Asteburu ederra izan liteke!

Apirilaren 6an Korrika igaroko da eta 7an Asier Olaizolaren zapelaren ospakizun festa izanen da

**ESTEBAN AROTZENA**

Apirileko lehenengo asteburuan sona handia izanen duten bi ekitaldi prestatzen ari dira herrian. Ostiral gaueko hamarrak inguruan Korrika-12 igaroko da Goizuetatik. Gertakari ikaragarria dudarik gabe, AEKK euskararen alde antolatzen duen lasterketa erraldoi honek ez baitu sekula santan zanpatu gure herria. Esan beharra da, gainera, Korrika ez dela aipatutako egun horretako lasterketara mugatuko, giroa berotzeko

beste hainbat ekitaldi antolatzen ari baita aurretik gazte talde bat. Hauen artean aipagarriena martxoaren 31n pilotaplazan egingen den barrikotea izanen da. Bono-laguntzak bezala afari honetarako txartelak ere, Goiz Argin eta Amaiairen kafetegian daude salgai hurrengo igandea, hilak 25, arte. 948 514242 telefono zenbakian ere izena eman daiteke barrikoterako.

Gai honekin bukatzeko aipatu, herriko lau gaztek osatutako rock talde batek egun berezi



Asier eta Fernandoren zapelaren ospakizuna apirilaren 7an izanen da Goizuetan.

hau aprobetxatuko duela lehenengo kontzertua eskaintzeko. Gazte txean izanen da goizeko 2etan.

### Asierren zapela ospatzeko herri afaria apirilaren 7an

Ekitaldi bereziekin segituz esan, Asier Olaizolak, Fernando

Gofirekin batera eskuratu berria duen eskuz binakako zapel handia merezi bezala ospatzeko asmotan dela herria. Kronika hau idazterakoan hainbat xehetasun lotu gabe zeuden oraindik, baina ziurtzat eman ziguten apirilaren 7an egingen dela, eta nola ez, ekitaldi nagusia herri afaria izanen dela. Fer-

nando Gofi bera ere gonbidatua dago omenaldi afarira. Dagoeneko txartelak salgai egonen dira herriko tabernetan.

Asteburu ederrak datoz, beraz, goizuetarrentzat: bi larunbat jarraian herri afariak eta tartean, ekitaldi herrikoien artean herrikoien: Korrika.

**ARESO**

# Eskolako umeek Iruña bisitatu zuten ostiralean

Zuhaitz landareak moztu eta eraman dituzte

**JUANA MARI SAIZAR**

Martxoaren 16an eskolako umeek Iruña aldera irteera egin zuten. Txikienak Noaingo aireportura eta Nafarroako Museora joan ziren bisitan eta besteak Polo Parkera, autoak gidatu eta zirkulazio arauak hobeki ezagutzeko. Bazkal ondoren, denak elkarrekin joan ziren jostatzera Kili-Kili parkera.

### Zuhaitz landareak moztu eta eraman dituzte

Zubihanduta inguruan, orain gutxi moztatu eta txukundu ondoren, arbol landare gazteak jarri zituzten. Errekako igerilekuan ere beste landare batzuk sartu zituzten. Joan den astean, ezezagun batzuk zuhaitz hauek guztiak moztu eta eraman zituzten.

### Emakumeen Eguna ospatu zen

Martxoaren 9an, hamabi lagunek Emakumeen Eguna ospatu zuten. Afari aurrea girotzeko, herriko sei lagunek prestatutako «*La mujer florero*» izeneko antzerkia egitea pentsatu zuten, baina jende gutxi elkartzeko eta aurrez ezinezkoa izan da. Beraz, afari eder batekin ospatu zuten.



**Herritarrak Haur Kantari txapelketan**  
Nafarroako Haur Kantari txapelketara lehen aldiz aurkeztu dira Aresoko umeak. Larunbatean Irurtzunen burututako saioan Mikel Olazabalek bakarka «Gaueko malko bi» kantatu zuen. Aresoarrak taldeak (Irantz, Josune eta Xabier Alustiza, Alaitz eta Anartz Olano, Gorka Arraigo, Txomin Goikoetxea, Imanol Baraibar eta Garikoitz Nieto) «Eskolakeriak» abestu zuen.



# Bermeo, Sara eta Leitzako euskaltzaleak herrian bilduko dira

Asteburu honetan hainbat ekitaldi izanen dituzte

JOSEBA AZPIROZ

Bermeo, Sara eta Leitzako euskara eta kultur taldeak hainbat ekitaldi antolatu dituzte martxoaren 24 eta 25eko astebururako. Larunbatean, arratsaldeko bostetan kalejira izanen da. Scietan berri, dantzariak eta joakoak pilotalekuan eta ondoren trikipoteoa eta afaria eskolan. Igan-dean, goizeko 10:00etan mendi irteera izanen da. 11:30etan, kalejira eta abesbatzak eta ondoren, pilota partiduak plazan. Larunbateko afariaren prezioa 1.000 pezeta da eta txartelak Torren eta Gaztan daude salgai.

Aipatutakoaz gain, bada aparte esan beharreko beste ekitaldi bat ere. Larunbatean, arratsaldeko hiruetan hasi eta bederatziak bitarte Iñaki Perurena 100 kiloko harria 1.300 aldiz altxatzen saiatuko da.



Joan den urtean Bermeon elkartu ziren Leitza, Sara eta Bermeoko euskaltzaleak, hainbat ekitaldi eginez. Asteburu honetan Leitza bilduko dira.

Artxibokoa

## Hurtzaindegiko izen ematea zabalik

Hurtzaindegirako haurren izena emateko epea martxoaren 14an ireki eta maiatzaren 18an bukatuko da. Urtero bezala, ikasturtea irailean hasiko da eta aurten, 9.500 pta. ordaindu beharko dira hilerro. Haurren izena emateko, hurtzaindegirajon eta honako datu hauek eman beharko dira: haurraren izena eta jaioterria, gurasoen izen abizenak eta hileroko kuota kobratzeko banku edo aurrezki kutxaren kontu zenbakia. Datorren urteko ilbeltza baino lehen 3 urte betetzen dituzten haurrek ezin izanen dute hurtzaindegira joan eta irailean hasi behar dutenek 18 hilabete beteak beharko dituzte eta gazteagoak direnak ilbeltzan hasiko dira, baldin eta 18 hilabete badituzte.

## flash

- ◆ **Euskararen aldeko manifestazioa**  
Martxoaren 23an, arratsaldeko 8etan, manifestazioa egingen da "Euskara guztion eskubidea" lelopean.
- ◆ **Mendiarekin**  
zerikusirik daukaten gaiak aztertu eta erabakitzeke, Udalak Mendiko Zinegotzi Delegatua izendatu du Bixente Usabiaga. Astearte eta ostegunetan, arratsaldeko 7etatik 8etara, Udal idazkaritzan izanen da.
- ◆ **Olio begetalaren birtziklapenarako bilketa** martxoaren 23an hasiko da, azoka garaian, plazan. Beraz, hasi gordetzen etxeko olio bertara eramateko.
- ◆ **Drogomenpekotasunaren** prebentziorako teknikariak telefono berria du: 948 510 683.
- ◆ **Larre-sari gisa**  
Udalak 1.794.400 pta jasoko ditu aurten. Herri-lurretan bazkatzten duen zaldi edo behi-azienda bakoitzeko, 1.600 pta. ordaindu behar dira eta ardi-aziendako, 160.

## ARANO

# Korrikaren alde kantu afaria egin zen San Roke elkartearen

Egur loteen zozketa egin zen martxoaren 1ean

KONTXI KLABER

Martxoaren 9an ostirala, 70 lagun elkartu ziren Korrikaren alde antolatutako kantu afarirara. Afal ondorean Arantxa, Ainhoa eta Maider Ansak, soiniua

jo eta afaltzera bildutakoekin batera kantu herrikoiak abestu zituzten, tartean bertsoetan ere aritu ziran Legarreta, Osa, Iraola eta Toloxa. Oso giro polita sortu zen denen artean eta bertan bi kilometro erosteko adi-

naatera zen. Aurreneko aldiz apirilaren 6an pasako da alderdi hontatik.

## Egur loteen zozketa

27 egur loteren eskaera izan da aurten udal-letxean. Etxe bakoitze-

ko lote bakarra eskatzeko aukera zegoen.

Martxoaren 1ean egindako osoko bilkuran zozketatu ziren loteak. Eskale bakoitzari bere alderdian ematea kontutan hartu zen, ahal den gertuen izan deza-



Kantu afariaren kartela.

ten egurra ateratzeko orduan. Urte beteko epea izango dute lote hauek ateratzeko.



## BAZTAN

Balleko Udalak Kultur zentru  
naundia egin nahi du Elizondon

liburutegia, erakusketa-gela eta eszenatokia paratuko lirateke bertan

Balleko Udalak naundia kultur zentru berri bat eraikiko du. Bertan bertze, liburutegia, erakusketa-gela eta eszenatokia, zinea, musika, kontzertuak eta hainbat kultur jarduerak paratzeko eszenatokia paratuko lirateke Udala leku egokian. Hainbat ari da eta proiektuak 300 milioi inguru izanen da.

Kultur zentru berriaren proiektuaren baitan, gaur egun Baztaneko udalaren gabeziak bete eta erakusketa-gela, eszenatokia, zinea, musika, kontzertuak eta hainbat kultur jarduerak paratzeko eszenatokia paratuko lirateke Udala leku egokian. Hainbat ari da eta proiektuak 300 milioi inguru izanen da.

LIBURUTEGIA TAILA  
DA ASPALDIAN

Balleko Udalaren udal kultur ekitaldi konposten handitzea ez da hainbat aspigi-eremu sortzearekin bat etorritu, harez ere konpostuak, dantza ema-



## Mikel Altzuart nagusitu zen Elizondoko Antxitonean egindako Nafarroako Bertsolari txapelketaren saioan

Mikel Altzuart arizkundarra nagusitu zen martxoaren 11n Elizondoko Antxitonean trinketearen burututako Nafarroako Bertsolari txapelketaren lehen saioan. Bigarren postua Julen Zelaietak erdietsi zuen eta biak igande honetan Leitzaan egin den finalerdirako txartela lortu zuten. Elizondoko saioan parte hartu zuten sei bertsolariak berriki hildako Mariano Izeta izan zuten goipoan. Bere alarguna eta senideak ere saioa aditzen izan ziren.

Argazkia: Diario de Navarra

naldiak edo antzezlanak eskaintzeko arretoki dago-gokienez. Gainera, udal liburutegia ere arnas taila gelditu da. Hori moldatzeko 500-650 metro koadroko liburutegia eginen litzateke. 200 metro koadroko erakusketa-gela ere eginen

litzateke. Italiar estiloko eszenatokia duen artoak 300-400 lagun sartzeko lekua izanen luke eta 35 milimetro nahiz 16 milimetrotan zinea proiektatzeko kabinak izanen litzuzke.

Udaleko hautetsiek, gisa honetako zentroak

bisitu dituzte Nafarroan berean, Iparraldean eta Akitanian, leku hauetako esperientziak ezagutu asmoz. Udalaren erranetan, gisa honetako eraikin batek Baztango 28 kultur talderi aterabidea emanen lieke.

## ▼ flash

## Baztandarren Biltzarra bestari buruzko bilera

Ortziral honetan, martxoak 23, Baztandarren Biltzarra besta inguruan bilera eginen da arratsaldeko 8,30etan Baztandarren Biltzarako egoitzan. Bilera garrantzitsua izanen denez, ahal duten guztiak agertu daitzile bilerara erran dute antolatzaileek.

## Guardiazibilaren kuartelak

Guardia Zibilak Elizondo, Urdazubi eta Oronozen dituen kuartelak ez direla moldatuko adierazi zuen Jose Carlos Iribas, Espainiako Gobernuko ordezkariak Nafarroan, martxoaren 6an eskualdera egindako bisitan. Iribasen erranetan, kuartel hauen egoera ez da txarra.

## Lekarozko BHI ikastetxeko

Guraso Elkarteak euskararen erabilera arautzen duen Foru Dekretua gaitzetsi du. «Guraso bezala gure seme-alaben heziketan gure hizkuntza ezagutu eta bizitzea gure eskubidea dela» aldarrikatu du.



ZUBIRIA  
MINDEGIAK

- Elzeak apaintzeko landareak
- Baso landareak
- Bertako frutondoak

ARRAIOZ • NARBARTE  
Telefonak: 948 452032 (bulegoan) • 948 592034 (etxean)  
Faxa: 948 581274

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI  
Santiago 88, ☎ 948 580939  
ELIZONDO

UDABERRIKO  
ARROPA

BLUSAK, KAMISEK, GONAK,  
JERTSEK, GALTZAK, TRAJEAK,  
KONJUNTOAK eta OSAGARRIAK



LARRALDEA  
SAGARDOTEGIA

Bertan egindako sagardoa eta sagardotegiko menua

Telleria Auzoa • LEKAROZ  
☎ 948 452121



**BAZTAN**

# Iturri-Ederra elkarteak 19 milioi pezetako aurrekontua izanen du

Metro kubikoa 20 pezeta ordainduko da, Nafarroako merkeena

TTIPI-TTAPA

Elizondoko uren kudeaketaz arduratzen den Iturri-Ederra elkarteak 18,9 milioi pezetako aurrekontua izanen du, urteko batzarrean onartutakoaren arabera. Batzarrean erran zenez, Udalaren eta uren elkartearen arteko hitzarmena sinatzen ez den bitartean eta Udalak elkartearekin duen 10.343.304 pezetako zorrak kontuan hartzen ez badu, udal aurrekontuak errekurritu egingen ditu Iturri-Ederrak.

1993tik igan ez zen uraren prezioa igaita ere onartu zen. Halere, metro kubikoko 20 pezetarekin, Nafarroako merkeena izaten segitzen du Elizondokoak.



## San Francisco Javier eskolakoak Donostian

Otsailaren 20an Elizondoko San Francisco Javier Ikastetxe Publikoko 3. Zikloko ikasleak donostira eguna pasatzera joan ziren. Goizez Txuri-Urdinera patinatzerara eta arratsaldean Jorge Oteizaren erakusketa ikusterara eta eskulan tailer batean parte hartzerara joan ziren.

*Peritoniaia*

## Elizondoko eskolako ikaslea saritu du Nafarroako Gobernuak

Nafarroan barna egindako kultur ibilaldien inguruan Lehen Hezkuntzako bosgarren mailako ikasleek egindako marrazki eta idazlanak saritu zituen Hezkuntza Departamentuak martxoaren 7an. Guzira, Nafarroa osoko berrogei lan saritu dira. Idazlanen artean, Elizondoko San Francisco Javier eskolako Ainara Colás ikaslearen lana saritua suertatu da. Zorionak!



Ainara Colás

**URDAZUBI-ZUGARRAMURDI**

# Jatetxe eta ostatu berriak ideki dira negu huntan

Emakumeen Eguna ospatu zuen Ugarana taldeak

MARGARI ETA KORO

Negu hunk inguruko ostatu eta jatetxeetan mugimendua ekarri du; alde batetik Alkerdin «Burkaitzea» jatetxea berriz ireki eta martxan dago. Bertze aldetik Urdazubin lehen ere ostatu izana zen bat berri eta ireki dute: «Montxoaren ostatu». Azken urte hauetan ba-

karrik estanko bezala funtzionatzen bazuen orain irudi du arrakasta handia hartzen ari dela ostatu bezala, batez ere gazteen artean.

## Emakumeen Eguna ospatu zuen Ugarana taldeak

Martxoaren 8an Emakumeen Eguna ospatu zuen mundu guztian, eta Urdazubiko

Ugarana emakumeen taldeak ez zuen okasiora galduta nahi izan eta ederki ospatu zuen: autobus bat antolatu eta 37 andre Lesakako Koxkonta sagardotegian bere eguna ospatu zuten.

## Haurrak kanpaldian

Martxoaren 12, 13 eta 14an bi herriak haurrez hustu zaizkigu, kanpaldietara gan zaizki-



Haurrak ihauterietan.

gularokoz. Hirugarren mailakoetatik goiti Urbasara, eta ttikittoak Getarirat. Azken hauek nahiz eta ez sobera eguraldi ona izan, pozik itzuli ziren ekitza aunitz egin zituztelako: mahatsondoetan ibili, Elkanoren munduaren

inguruko bidairi buruzko bideo eta oroigarriak ikusi, Zumaiako plataformako animaliak ezagutu, zentzumenezko ibilaldia egin kostaldeko baserrien inguruan... eta bertze batzuk. Esperientzi pullita segurienik.



# «Beti aitzinka» taldekoak izanen dira herriko hemeretzi kontseilariak

«Biharko Sara» gazteen zerrendak beren arregurak plazaratu ditu

ANA MARI ETA FRED

Kantonamendu eta herrietako hauteskundeak lehen itzulia iragan da martxoaren 8an. Hauek dira herrian izan ditugun emaitza aipagarrienak. Kantonamenduko bozetan Vincent Brunagusitu da (%22,6), bigarren Aberzaleen Batasuneko Panpi Dirassar agertzen da (518,8) eta hirugarren Peio Labeguerie (%18,6). Dena den, Pauen arituko den Ezpeletako kantonamenduko ordezkaria Vincent Bru eta Peio Labeguerieren artean hautatu beharra zen martxoaren 18an, bi hauek baitituzte botu gehienak bildu kantonamenduko guzian.

Bertzalde, aipatu hauteskunde horietan parte hartzea %73,8koa izan baldin bada ere, herriko kontseilarien hautatzeko bozkatzen ahal duten %77,4ek egin dute. «Beti aitzinka» Jean Aniotzbehere auzapezaren zerrendako 19 hautagietarik 18 hautatuak izan dira lehen itzulian, eta kanpo gelditu den bakarrak bigarren itzulian hautatua izateko mentura zuen, hautagai bakarra izanki. Aulkiarik ez baldin badute ere, aipagarria da «Biharko Sara» zerrendako gazteek egin dutena. Alabainan, hauteskunde aitzakiarekin beren (eta jende aintzen) arranguren plazaratzeko paradaz baliatu dira, saratar fran-



Herritarren %77,4ak eman zuen boza herriko kontseilariak hautatzeko.

goren sustengua erdietsiz gainera. Herriko gazteak herriko biziaz eta geroaz arduratzen direlaren seinalea, norbaitek zalantzak baliatu...

## Tere eta Bixenteren aldeko afaria

Martxoaren 3an Bixente Garziaren alde eta Teresa Telletxearen omenez afaria izan zen, BIGA sustengu komiteak antolatutako. 160 pertsona bildu ziren Omordia gelan, Christophe Predine eta Claude Etxeberrik prestatutako afari goxoaren preziazteko.

## San Josepe eskola Haurren Bestan

Aurten ere San Josepe eskola pribatuak Haurren Bestan parte hartuko du. Apirilaren 1ean, igandearekin, Hazpurnen Mendeola sala berrian (Intermarché ondoan) arratsalde-

ko 3etan iraganen da. Besta hau Euskal Haziak (eskola pribatuaren elkarteak) Mixel Labeguerien omenaldi gisa antolatu du oraingoan. Euskal kantari eta olerkari haundi honen omenez hor izanen dira bere bi seme Peio eta Eneko Labeguerie eta Erramun Martikorena. Kantari hauen ondoren haurrek Labeguerien lau kantu abestu behar dituzte. Arratsaldea behar bezala finitzeko «Azkonak» pailaso taldeak bere azken emandialdia eskainiko du.

## Garaipena azkenean

Azkenean! Aspaldiko partez Sarako Izarra errugbi taldeak garaipena erdietsi du, martxoaren 11n St Julien-en-Borne taldeari 25 eta 3 nagusitu baitzaio. Nahiz eta jakin heldu den denboraldian azpiko mailan jokatu

ditela, basurdeek erakutsi dute Animanian irabaztea ez dela nihorrentzat gauza errexa izanen. Bertzalde, bigarren taldeak jokatu gabe irabazi du, Landestarrek ez baitute talderik aurkeztu. Sarako Izarrak denboraldi hantako azken bi partidak martxoaren 25ean (Azkainen kontra Animanian) eta apirilaren 1ean (Lit-et-Mixeko zelaian) jokatu ditu.

## Korrikako lau kilometro eginen dituzte saratarrek Ibardinen

Gasteizetik Baionaraino ibiliko den Korrika, AEKK antolatu euskararen aldeko lasterkaldia ez da herritik pasatukoaldi hontan. Dena dela, gure hizkuntzari atxikimendua erakusteko parada izanen dugu, Korrika gure auzo herrietan gandi ibi-

liko baita. Horretaz gain, saratarrek berezikiago gomiatu dira apirilaren 8an, igande goizeko 8etan, Ibardineko kas-koon, lau kilometro atxikiak baitira Sarako elkarteentzat.

## Sara-Bermeo-Leitza topaketak aste hondar hontan

Bigarren urteko, Bermeoko, Leitza eta Sarako euskaltzaleak asteburu oso batez elkartuko dire. Joan den urtean 3 herritakoak Bermeon elgarretaratu ziren. Aurten Nafarroako Leitza herrian dute hitz ordua martxoaren 24 eta 25ean. Asteburu honen helburua elkar hobeki ezagutzeta da; gure mintzairari dagokion tokia emanez. Erran gabe doa bi egunez harreman guziaz euskaraz eginen direla; gure herrian hola-koak gero eta urriagoak dira zoritxarezt!

Hona ondotik asteburuaren egitaraua: Larunbatean, herri bakoitzeko euskara taldeen bilkura; gazteen arteko jokoak; kalejira musikari eta dantzari-kin, triki poteoa eta afaria. Igandean: mendi ibilaldia, bazkaria eta pilota partidak.

## Belote txapelketa

Bigarren urteko, Herriko Etxeko edantegiak belote lehiaketa antolatzen du. Hilabete honen 23an hasi beharra da txapelketa. Izen ematearen saria 50 libretan finkatua da jokalaria bakoitzarentzat.



**SENPERE**

# Herriko lehen auzapez-anderea izanen dugu ondoko sei urteetan

Hautzaindegi berria eraikitzea da bere lehen xedeetan

FRANCK DOLOSOR

Agintaldi berrian emazteek behar zuten toki zabala izanen dute herriko kontseiluan. Gainerat, lehen aldikotz Senperetik auzapez-anderea du martxoaren 11az geroz, Christine Bessonart euskaldun-berria. Hautatu izan bezain laster erran duenez, pozik da emazteez inguraturik izatea lan egiteko eta entseiatuko da bilkurak arratsetan antolatzea den-denek parte hartzeko gisan. Bere ustez, langile eta ama direnek ongi eskertuko dute seguraski. Giritino-demokratatza du bere burua alderdikide ez den 46 urteko auzapezak. Proiektu andanaren artean haurtzaindegi berria eraikitzea da



**Christine Bessonart, auzapez berria.**

bere lehen xedeetan. Hemen dituzue herriko bozetako emaitzak: Boz-emaileak orotant: 3295 Boz-emaileak: 2548 Bali diren bozak: 2426 Parte hartzea: %77. 27 alkiak hola banatu dituzte: Christine Bessonart %52,21 kontseilari; Christian Fourgeau %33,4 alki; Pierre Iturria %15,2 alki.



## Mozorro andana ikusi zen ihauterietan

Otsailaren 2an mozorrotu zen jende andana bildu zuten aurten go ihauterietan. Ideia frango beti bezala eta mementu goxo berrak hurbildu zirentzat.

Argazkiak: Studio de la Nivelle



## Udalbiltzak Ikas-bi, Euskal Haziak eta Udaleku lagunduko ditu

Desagertzekotan zen Udalekuk bere lana aintzina segitzen ahaliko du Udalbiltzak eman dion 6 milioi pezeta diru laguntzari esker, 240.000 libera. 1982az geroz, Udalekuk haurtzaindegiak, udalekuak, ateraldiak eta halakoak

proposatzen ditu haurtzaindegiak. 1.400 gazte biltzen ditu gaurko egunean.

Bertalde 3 milioi 750 mila pezeta eman dizkio Ikas Biri mugaz gaindiko harremanak haunditzeko gazte-txoen artean. Euskal

